

behar bezalako koordinazioa eskatzen dute; eta, ondorioz, beharrezkoa da baliabide horien kostuak partekaturik onartzea, eta ez dirudi hiru lurraldeetan modu orekatuan egin denik.

Halaber, lehentasunezkoa da paziente psikiatrikoak arreta sozio-sanitariorako euskal Kontseiluak erdietsitako egitura sozial normalizatueta kokatzeko akordioak osoki betetzea.

5. Toki-erakundeei behar besteko finantzaketa ematea AMAL indarrean sartu zela eta egokitu zaizkien zereginen areagotzeari aurre egin ahal izateko, eta erakunde horiek gizarte-politiken diseinuan protagonismo handiagoa izatea bultzatzea

Toki-erakundeek, [AMAL](#) indarrean sartu zela eta, zeregin gehiago hartu dute beren gain. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Legeak menpekotasun-egoeran dauden pertsonen arretarekin eta autonomia pertsonalaren sustapenarekin zuzenean lotuta dauden hainbat eskumen esleitzen dizkie. Ondorioz, beharrezkoa da toki-erakunde horien finantzaketa zeregin horiei behar bezala aurre egin ahal izateko nahikoa dela bermatzea.

Zerbitzuen hornikuntzan administrazio batek baino gehiagok esku hartzen dutela kontuan hartuz, komenigarria dirudi herritarrengandik hurbilen dauden administrazioei protagonismo handiagoa ematea, ziurrenik egokienak baitira banakako beharrei erantzuteko egokiak diren irtenbideak proposatzeko.

6. Baliabide sozialak sortu eta mantentzera bideratutako lanarekin jarraitzea, hala nola, menpekotasun-egoeran dauden herritarrei eta haien zaindariei zuzendutako zerbitzu, prestazio eta programekin

Autonomia pertsonala sustatzera eta menpekotasun-egoerari erantzutera bideratutako zerbitzu eta prestazioen eskaera etengabea eta gero eta handiagoa da, argi dago gaur egun-go baliabideak ez direla nahikoa eta beharrezkoa da hutsune batzuk betetzeko baliabideak sortzea. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da EAEEn azken urteotan gauzatu den inplementazio-lanarekin jarraitzea. Gure erkidegoak ezin du pentsatu nahikoa denik Estatuko Administrazio Orokorra ezartzen dituen gutxiengoak betetzea.

Oro har, zerbitzuen estaldura-tasak eta prestazioen pixkanaka gure erkidegoan menpekotasun-egoeran dauden herritarren tasetara egokitzuz joan beharko lukete. Beharrezkoa da, era berean, baliabideak eskuratzeko itxaron behar den denbora-tartea –plaza-kopurua nahikoa ez izatearen ondoriozkoa– laburtuz joatea, baita oinarrizko zerbitzu jakin batzuk lortzeko itxaron behar dena ere (adibidez, etxez etxeko laguntza edo telelaguntza zerbitzua).

Behin betiko nahiz aldi baterako egoitza-baliabideak, eguneko arretakoak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzura bideratutakoak areagotzea ezinbestekoa da AMALek zerbitzu publikoei ematen dien lehentasuna egia bihur dadin. Horrek, gainera, onuradunek beren Banakako Arreta Programaren diseinuan eraginkortasunez parte hartzeko eskubidea izatea bermatzen lagunduko du.